

Joxe Iriarte, *Bikila*

Ezina ekinez egina

Errepikatu gezur bat mila aldiz, eta handik gutxira egia bihurtuko da”. Joseph Goebbelsek asmaturiko leloa dotrina egin dute boterean daudenek. Esate baterako, instituzioek garapen jasangarria eta herritarren partaidetza bultzatzen dituztela gezur borobila izanik, ontzat ematen da bazter guztietatik errepikatzen digutelako.

Mila adibide jarriko nuke, baina batekin geratuko naiz. Publi-propagandaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu berria eredugarria izan beharko genuke jasangarritasunari dago-kionez. Baina, Donostialdeko Lurralde Plan Partziala delakoa aztertuz gero (gaintzekoak ere antzekoak izango dira) ikusten da baieztapen hori ez dela egia. Areago, desastre hutsa dela ageri da. Gainera, ziria, isilka-misilka, inongo eztabaidarik gabe (informazioa Internetera eta erakusketa engainagarri batera mugatuz) sartu nahi digute.

Zorionez, badira Interneteko berriak aztertzen eta herritarrei helarazten dituztenak, eta lagun horiei esker, duela bi hilabete eskas jakin genuen Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak –jadanik onartua dagoena– Oiartzun herrian eragin handia izango duten ekimenak biltzen dituela. Hala nola, bigarren Ingurabidearen luzapena eta Lezo-Gaintxurizketako eremuan jarduera estrategiko eta logistikoetarako plataforma. Lehenengoak bete-betean harrapatzen du Oiartzungo bailara, halaber, plataforma logistikoak, herriko plangintzan neurri batean babesturik dauden eremu zabalak hartzen dituelarik.

“Ttakun-ttakun... Oiartzun arriskuan!”. Txalaparta informatikoaren eta kartel batzuen bidez herri batzarra konbokatu genuen. 200 bat herritar, baserritar zein auzotar edo kaletar agertu ziren, denak guztiz asaldaturik entzuten ari zirenekin: “Donostiako bigarren gerri-



DANI BLANCO

koa egin berria eta beste luzapen bat egin nahi dute gure bailararen erditik? Gainera, beste plataforma logistiko erraldoi bat egin nahi dute? Ahaztu gabe, AHTren obrak hastear daudela? Horrek ez du ez hankarik ez bururik!”

Batzarrean lan-talde bat sortu zen. Mehatxuari aurre egiteko modurik eragin-korrena, herritarrei informazioa helaraztea izan zen. Nola? Auzoetan batzarrak antolatuz, etxez etxe banatzeko esku-orriak eginez, hondamendia irudikatzen duten panelak eta argazkiak toki guztietan ezarritik, eta batez ere, ahalik eta alegazio gehien bilduz, plan honen erantzule diren Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Sailera eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko.

Hasieran ezina zirudiena lortu dugu: 7.500 alegazio biltzea –horietatik 3.200 Oiartzunen bizi diren herritarrenak: errol-daren %40 ordezkatzeko duena– eta Lurralde Antolaketa Sailaren Donostiako ordezkari-tan aurkeztu genituen abenduaren 30ean. Baina gai horren inguruan eraturiko herri-sarea eta batez ere “herriko eragile sozial eta politiko guztien artean lorturiko erabateko adostasuna” izan da garrantzitsuena, honen isla izan baita alderdi politiko guztiak bat etorri izana alegazioarekin. Eta hasieran alde zegoen Diputazioa ere hasi da autobidearekiko desmarkatzen.

Pozik gaude. Instituzioek kudeatzen dituztenen zurikerria agerian uzteaz gain, beste gezur arriskutsu bat jarri dugu kolokan. Hau da, herritarrek ingurumenarekiko arazoez paso egiten dutela ustearekin, edo behintzat, goitik datozen barrabaske-riak gerarazi daitezkeen ustearen aurrean herritarrak etsita daudelako ustearekin. Bestela esanda: “Gogoko izan ala ez, goikoek nahi dutena egingo dute beti, beraz, zertarako istiluetan sartu?” delakoarekin.

Bada, bai! Batzuetan lortzen da, ezina ekinez eginik! ■

Hasieran ezina zirudiena lortu dugu: 7.500 alegazio, horietatik 3.200 Oiartzungo herritarrenak. Lurralde Antolaketa Sailaren Donostiako ordezkari-tan aurkeztu genituen. Baina gai horren inguruan eraturiko herri-sarea eta batez ere ‘herriko eragile sozial eta politiko guztien artean lorturiko erabateko adostasuna’ izan da garrantzitsuena